



1.- TESTUINGURU EKONOMIKOA

1.1.- NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hirugarren hiruhilekoa pandemiaren inflexio puntua eta ekonomiaren susperraldiaren hasiera izango zela ematen zuen. Murrizketen erlaxazioak eta mugikortasun geografiko berreskuratuak gogor bultzatu zuten gorantz mundu mailako jarduera ekonomikoa eta hazkunde tasa apartak eskuratu ziren, batez ere hiruhileko arteko tasetan neurtuta. Hala eta guztiz ere, udako hilabeteetan bizi zen birusaren hedapenak (iazko azken hiruhilekoan kontrolik gabe hedatu zen) eten egin zuen joera hori. Munduko ekonomia nagusiak kutsatzeen bigarren boladaren aurrean blindatu ziren, mugikortasunerako eta saltokietarako murrizketa berriekin, baita konfinamendu zorrotzak ezarrita ere, hala nola Frantzia eta Erresuma Batuan ezarri zirenak, azaroan biztanleria osora hedatu zena.

Birusaren hedatzea kontrolatzeko onartu ziren neurri berri horiek, toki batzuetan, nolabaiteko atzerapena eragin zuten susperraldiaren erritmoan eta, beste batzuetan, hirugarren hiruhilekoan baino narriadura handiagoa ekarri zuten, baina, edonola ere, martxoko eta apirileko lehen olatuan baino intentsitate txikiagoarekin eragin zioten jarduera ekonomikoari. Izan ere, susperraldiaren sendotasuna asko aldatzen da herrialdeen artean, esku hartze medikoetarako sarbidearen, politiken babesaren eraginkortasunaren, mugaz gaindiko ondorio ekonomikoekiko esposizioaren eta krisiaren hasieran ekonomia bakoitzak dituen egiturazko ezaugarrien arabera.

Txina Covid-19ari eusteko paradigma bihurtu zen, baina horretarako neurri murriztaile zorrotzak eta biztanleriaren kontrol sakona behar izan zituen. Iazko lehen hiru hilabeteetan %6,8 jaitsi ondoren, Txinako ekonomia modu iraunkorrean suspertu zen, eta bai enplegua bai bizi maila indartsu sendotu ziren. Zehazkiago adierazita, Txinako BPGa %6,5 hazi zen urteko azken hiruhilekoan, hau da, 2019ko azken hiruhilekoan, hots, pandemia hasi baino pixka bat lehenago, baino puntu erdi

1.- CONTEXTO ECONÓMICO

1.1.- ECONOMÍA INTERNACIONAL

El tercer trimestre apuntaba a un punto de inflexión de la pandemia y al inicio de la recuperación de la economía. Las relajaciones de las restricciones y la recuperada movilidad geográfica impulsaron con fuerza la actividad económica a nivel mundial, que registró extraordinarias tasas de crecimiento, especialmente en tasas intertrimestrales. Sin embargo, la propagación del virus en los meses de verano, que llegó a extenderse sin control en el último trimestre del año, truncó esta tendencia. Las principales economías mundiales se blindaron ante la segunda oleada de contagios con nuevas restricciones para la movilidad, para los comercios, e incluso con la imposición de confinamientos estrictos, como el llevado a cabo en Francia y Reino Unido, que se extendió al total de la población durante el mes de noviembre.

Estas nuevas medidas para contener el avance del virus implicaron desde cierto retroceso en el ritmo de recuperación hasta una contracción mayor a la registrada en el tercer trimestre del año, si bien, en cualquier caso, afectaron a la actividad económica con menos intensidad que la primera ola de marzo y abril. Y es que, la solidez de la recuperación varía considerablemente entre países, dependiendo del acceso a intervenciones médicas, la eficacia del apoyo de las políticas, la exposición a repercusiones económicas transfronterizas y las características estructurales de cada economía al inicio de la crisis.

China se convirtió en paradigma de contención de la Covid-19, aunque para ello necesitó fuertes medidas restrictivas y un profundo control de la población. Después de caer un 6,8% en los tres primeros meses del año, la economía china se recuperó de manera sostenida, a la vez que el empleo y el nivel de vida se consolidaron firmemente. Concretamente, el PIB chino creció un 6,5% en el último trimestre del año, lo que representa medio punto porcentual más que el registrado



bat gehiago. Pandemiarekin lotutako produktuen esportazioek bultzatuta, industria alorreko ekoizpenak %2,8 egin du gora eta gehikuntza horrek azaltzen du ekonomia osoaren emaitza ona. Hazkunde berri horri esker, Asiako erraldoia izan zen 2020a hazkunde positiboa (%2,3) eskuratu zuen potentzia handi bakarra.

Latinoamerikako herrialdeei dagokienez, bertako ekonomia nagusiek bigarren olatua saihestu zuten. Hala, Mexikok %4,5 baino ez zuen behera egin, hirugarren hiruhilekoan baino lau puntu gutxiago, enpresa txiki eta ertainentzako mikrokreditu-programen laguntzari esker eta sektore pribatuarekin egindako azpiegitura plan berri bati esker (14.000 milioi dolar inguru). Brasilek ere gutxiago egin zuen behera, -%1,2ra arte, aurreko -%3,9aren aldean. Diru sarrera txikiko familientzat ezarri zen larrialdiko gizarte laguntzako plan eskuzabalari esker, inbertsioak nabarmen egin zuen gora (%13,8), eta kontsumo pribatua gutxiago jaitsi zen.

Indiak, bere aldetik, Txinako gobernuaren antzera jokatu zuen pandemiaren aurrean. Munduko konfinamendurik zorrotzenetako bat egin zuen, bi hilabete baino gehiagoz luzatu zena, eta 2020ko bigarren hiruhilekoan bertako BPGa -%24 baino gehiago jaitsi zen. Hirugarren hiruhilekotik aurrera, ekonomia suspertzen joan da, eta iazko azken hiruhilekoan hazkunde positiboei berrekin zien. Zehazki, BPGa %0,1 hazi zen iazko azken txanpan, inbertsioak gora egin zuelako eta gainerako agregatuek gutxiago egin zutelako behera. Erreferentzia tasaren murrizketak eta kreditu eskuragarritasunak azaltzen dute hobekuntza hori.

Ekonomia aurreratuen artean, jarduera globalaren bilakaera heterogeneoa izan zen eskualdeen eta sektoreen arabera, ekonomiaren suspertzearen eta pandemiaren kontrolaren arteko oreka delikatuak baldintzatuta. Hain zuzen ere, ekonomia aurreratuek, oro har, behera egin zuten berriro, eta %3,4 gutxitu ziren, 2020ko bigarren hiruhilekoan izandako -%11,6tik urrun.

en el último trimestre de 2019, poco antes del inicio de la pandemia. La fortaleza de la producción industrial, que creció un 2,8%, impulsada por las exportaciones de productos relacionados con la pandemia, explica el avance. Este nuevo incremento permitió al gigante asiático ser la única gran potencia en cerrar 2020 con un crecimiento positivo (2,3%).

En lo que se refiere a los países de América Latina, sus principales economías lograron sortear la segunda ola. Así, México cayó solo un 4,5%, cuatro puntos menos que el tercer trimestre, gracias al apoyo de sus programas de microcréditos para pymes y un nuevo plan de infraestructuras con el sector privado por un valor de unos 14.000 millones de dólares. Brasil también redujo su contracción, en este caso hasta el -1,2%, frente al -3,9% previo. El generoso plan de ayuda social de emergencia para familias de bajos ingresos permitió un importante avance de la inversión, que se disparó hasta el 13,8%, y una menor contracción del consumo privado.

India, por su parte, actuó frente a la pandemia de manera similar a como lo hizo el gobierno chino. Realizó uno de los confinamientos más estrictos del mundo, que se extendió durante más de dos meses, lo que desplomó su PIB en el segundo trimestre de 2020 por debajo del -24%. Desde el tercer trimestre, la economía ha ido recuperándose, hasta llegar en el último trimestre del año a retomar los crecimientos positivos. En concreto, el PIB creció un 0,1% en la recta final del año, gracias al repunte de la inversión y a la menor contracción del resto de agregados. La reducción de la tasa de referencia y la disponibilidad de crédito explican esta mejora.

Entre las economías avanzadas, la evolución de la actividad global fue heterogénea por regiones y sectores, condicionada por el delicado equilibrio entre la reactivación de la economía y el control de la pandemia. Concretamente, las economías avanzadas, en su conjunto, volvieron a reducir su caída y se contrajeron un 3,4%, lejos del -11,6% sufrido en el segundo trimestre de 2020.



AEBko ekonomiak kutsatzen bigarren olatuari ihes egitea lortu zuen eta goranzko joerarekin jarraitu zuen, erritmo apalagoan izan bazen ere. Zehatzago esanda, BPGaren tasa $-2,4$ izan zen, iazko hirugarren hiruhilekoko erregistroa baino lau hamarren gorago, inbertsio pribatuaren gorakadak bultzatuta, batez ere bizitegietan eginiko inbertsioarena, eta, neurri txikiagoan, ekipamenduarena, bai eta inbertsio federalak erakutsitako sendotasunarena ere. Hala ere, dena ez zen albiste ona izan. Birusaren eta Kongresuak azken laguntza plana onartzeko atzerapenaren ondorioz, 2020ko azken hiruhilekoan kontsumoak oraindik erakutsi zuen ahultasunak lausotu egin zuen ordura arte datu positiboak eman zituzten sektore bakarren portaera ona, hau da, manufacturarena eta eraikuntzarena.

Japonia ere erresilientea izan zen eta ez zuen bere egoera ekonomikoa okertu, infekzioei eusteko murrizketak ezarri bazituen ere. Bertako BPGaren aldakuntza tasa $-5,8$ izan zen 2020ko hirugarren hiruhilekoan, eta $-1,3$, berriz, laugarrenean, inbertsioaren portaera onari eta kontsumo pribatuaren eta esportazioen uzkurte txikiagoari esker. 2019. urtearen amaieran, Japonia tasa negatiboetan murgilduta zegoen. Tifoi suntsitzaileek eta BEZaren igoerak nabarmen oztopatu zuten haren jardura ekonomikoa, eta 2020ko lehen hilabeteetan pandemia gehitu zitzaion horri. Bere igurikimenak ez ziren batere onak, baina, paradoxikoki, bere susperraldia beste ekonomia aurreratu batzuen bano indartsuagoa izaten ari da.

Europar Batasuneko jardura ekonomikoa gehiago nabaritu zituen ezarritako murrizketak eta iazko hirugarren hiruhilekoan hasitako susperraldiaren zati bat galdu zuen laugarrenean. Kontsumo pribatua eta inbertsioa nabarmen jaitsi ziren eta BPGari hamarren gehiago kendu zizkioten; kontsumo publikoak, berriz, puntu erdiko ekarpenari eutsi zion. Horren ondorioz, jardura ekonomikoa $-4,6$ jaitsi zen, aurreko hiru hilabeteetan baino puntu erdi bat gehiago.

La economía estadounidense logró esquivar la segunda ola de contagios y continuó con su senda creciente, si bien a un ritmo más modesto. Más en detalle, el PIB se situó en el $-2,4$, cuatro décimas por encima del registro del tercer trimestre del año, impulsado por el repunte de la inversión privada, especialmente de la residencial, y, en menor medida, en equipamiento, así como por la solidez mostrada por la inversión federal. Sin embargo, no todo fueron buenas noticias. La debilidad mostrada todavía por el consumo en el último trimestre de 2020, a consecuencia del virus y del retraso en la aprobación del último plan de ayudas por el Congreso, empañó el buen comportamiento de los únicos sectores que hasta el momento habían arrojado datos positivos, el manufacturero y el de la construcción.

Japón también se mostró resiliente y no empeoró su situación económica pese a las restricciones implantadas para contener las infecciones. Su PIB pasó del $-5,8$ en el tercer trimestre de 2020 al $-1,3$ en el cuarto, gracias al buen comportamiento de la inversión y a la menor contracción del consumo privado y de las exportaciones. A finales de 2019, Japón ya se encontraba sumido en tasas negativas. Los devastadores tifones y la subida del IVA lastraron de forma importante su actividad económica, a lo que se le sumó en los primeros meses de 2020 la pandemia. Sus perspectivas no eran nada halagüeñas, pero, paradójicamente, su recuperación está siendo más vigorosa que la de otras economías avanzadas.

La actividad económica de la Unión Europea fue más sensible ante las restricciones impuestas y perdió parte de la recuperación iniciada en el tercer trimestre del año. Tanto el consumo privado como la inversión cayeron de manera más acusada y drenaron más décimas al PIB, mientras que el consumo público mantuvo su aportación en medio punto. Como resultado de todo ello, la actividad económica cayó hasta el $-4,6$, medio punto más que en los tres meses previos.



Herrialdeka, bi portaera bereizten dira. Alde batetik, Alemaniak erresistentzia handiagoa erakutsi zuen, murrizketen izaera mugatuagoa zela eta. Murrizketa horiek gutxiago geldiarazi zuten industria sektorea, eta inbertsioaren zein esportazioen uzurtzea eragotzi zuten. Horri esker, suspertzen jarraitu zuen eta hirugarren hiruhilekoko erregistroa hobetu zuen, tasa negatiboetan jarraitu arren. Bestalde, Europako gainerako ekonomia nagusiak ere kaltetuta atera ziren, pertsonen mugikortasunari eta jardura ekonomikoko batzuetan normaltasunez jarduteari jarritako murrizketen ondorioz. Hala, Frantziak, Italiak eta Portugalek aurreko hiruhilekoan lortutako aurrerapausoaren zati bat galdu zuten eta BPGa ahuldu egin zen berriro.

Herrialde horietan guztietan, kontsumo pribatuak behera egin zuen berriro eta inbertsioak, berriz, ahul jarraitu zuen. Kontsumo publikoa bakarrik zegoen eremu positiboan, baina ez gainerako agregatuen beherakadari aurre egiteko bezain indartsu. Zehazki, Frantziak %4,9 egin zuen behera, Italiak %6,6 eta Portugalek %6,1. Espainiako ekonomiaren bilakaera eta aurreko taldearena ezberdinak dira soilik kontsumo pribatuaren bilakaeran; izan ere, uzurtuta jarraitzen badu ere, hirugarren hiruhilekoko datuekin alderatuta nolabaiteko hobekuntza erregistratu da. Hala ere, iazko amaieran izandako bilakaera (-% 9,1) hirugarren hiruhilekoan lortutakoa baino hamarren bat okerragoa izan zen.

Urtarrilaren hasieran, bigarren olatua kontrolpean zegoela uste zenean eta itxaropena txertoetan jarrita zegoenean, hirugarren olatu bat hasi zen, Eguberrietako jaiak eta egun horietan egindako joan-etorriak eta bilerak eragin zituen. Gainera, birusaren aldaera berriak agertu ziren, askoz kutsagarriagoak. Horren guztiaren ondorioz, kasuak berriro hasi ziren igotzen, eta, horiekin batera, beste murrizketa multzo bat onartu zen.

Epe laburrean konfinamenduak altxatzea ezinezkoa denez eta txertaketa motela denez, ekonomiaren hazkundea aurtengo lehen hiruhilekoan negatiboa izango dela uste da. Hori iradokitzen dute eskura dauden adierazleek. Zehazkiago, enpresa

Por países, se aprecian dos comportamientos diferenciados. Por un lado, Alemania mostró una mayor resistencia, debido al carácter más acotado de las restricciones, que frenaron menos al sector industrial y favorecieron una menor contracción de la inversión y de las exportaciones, lo que permitió que continuase con su recuperación y mejorase el registro del tercer trimestre, pese a seguir en tasas negativas. Por otro lado, el resto de principales economías europeas se vieron nuevamente lastradas por las restricciones a la movilidad de las personas y al normal desempeño de algunas actividades económicas. Así, Francia, Italia y Portugal perdieron parte del avance logrado el trimestre previo y su PIB volvió a debilitarse.

En todos esos países, el consumo privado volvió a caer con fuerza mientras que la inversión continuaba deprimida. Únicamente el consumo público lograba situarse en terreno positivo, si bien no con la suficiente fortaleza como para contrarrestar la caída del resto de agregados. En concreto, Francia cayó un 4,9%, Italia un 6,6% y Portugal un 6,1%. La evolución de la economía española difiere del grupo anterior solo en la evolución del consumo privado, que, si bien sigue contraído, registra cierta mejora respecto a los datos del tercer trimestre. Con todo, su evolución en el tramo final del año (-9,1%) fue una décima peor que la obtenida en el tercer trimestre.

A principios de enero, cuando se creía controlada la segunda ola y con la esperanza puesta en las vacunas, comenzó una tercera ola cuyo detonante fueron las fiestas navideñas y los desplazamientos y reuniones realizadas en esas fechas. Además, aparecieron nuevas variantes del virus, mucho más contagiosas. Todo ello supuso que los casos nuevamente comenzaron a dispararse y, con ellos, una nueva batería de restricciones.

Ante la imposibilidad de levantar los confinamientos a corto plazo y el lento progreso en la vacunación, todo hace pensar que el crecimiento de la economía seguirá siendo negativo en el primer trimestre de este año. Así lo avalan los indicadores disponibles



sentimenduak biltzen dituzten PMI konposatuek erakusten dute urtarrilean eta otsailean adierazlea 2020aren amaierako mailan kokatu zela, aldaketa handirik gabe. Zehazki, otsailean, eskura dagoen azken datua, garatzeko bidean dauden herrialdeez osatutako PMIa 52,0an zegoen, abenduaren 54,1aren azpitik, eta eurogunekoa eta Europar Batasunekoa, berriz, 48,8an, abenduan erregistratutako 49tik gertu.

Europako Batzordeak egindako sentimendu ekonomikoaren adierazleak ere teoria hori babesten du, non inguruko herrialde nagusietako batek ere ez duen sentimendu ekonomiko baikorrik erakusten, ezta Europar Batasunak ere. Hala ere, Europar Batasunaren sentimendu ekonomikoa 93,1ean zegoen otsailean, 2000. urtetik izandako batez besteko balioa (100ekoa) baino nabarmen beherago, baina handiena izan zen murrizketak hasi zirenetik. Itxura guztien arabera, susperraldi prozesua eten egingo da 2021eko lehen hiruhilekoan, baina aurrerapen handirik espero ez bada ere, ez da beherakada handirik ere izango, lehen olatuan bizi izan ziren bezala.

1.2- EUSKADIKO EKONOMIA

Udatik aurrera kutsatzeen bigarren olatuaren etorrerak mugikortasunaren murrizketa berriak ekarri zituen, eta horrek ekonomiaren garapena geldiarazi zuen. Zehazki, 2020ko laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak -%7,6ko urte arteko tasa izan zuen, aurreko aldiaren baino hamarren bat gutxiago, eta geldotasuneko irudia eman zuen, urtearen erdialdean hasitako susperraldia eten zuena. Irudi hori ez da EAEko ekonomian bakarrik gertatu; aitzitik, Europar Batasunean eta Eurogunean ere hauteman da, hirugarren hiruhilekoan baino urte arteko tasa txikiagoak eskuratu zituztelako. Are gehiago, arlo horietan hiruhileko arteko tasa negatiboa izan zen, eta EAEko kasuan, berriz, oraindik ere gorakada txiki bat lortu zen, %0,5ekoa.

hasta el momento. Más en detalle, los indicadores de sentimiento empresarial PMI compuesto reflejan que en enero y febrero este indicador se situó en cotas parecidas a las de finales de 2020, sin grandes variaciones. En concreto, en febrero, último dato disponible, el PMI compuesto de los países emergentes se situó en 52,0, sensiblemente por debajo del 54,1 de diciembre, mientras que el de la zona del euro y la Unión Europea lo hizo en el 48,8, próximo al 49 registrado en diciembre.

El indicador de sentimiento económico elaborado por la Comisión Europea también respalda esta teoría, en la que ninguno de los principales países de la zona, ni la Unión Europea en su conjunto, muestra un sentimiento económico optimista. No obstante, el sentimiento económico de la Unión Europea en febrero se situó en el 93,1, claramente por debajo del 100, que es su valor medio registrado desde el año 2000, pero resultó el más elevado desde el inicio de las restricciones. Todo parece indicar que el proceso de recuperación se mantendrá en pausa durante el primer trimestre de 2021, pero si bien no se esperan grandes avances, tampoco habrá grandes caídas como las vividas en la primera ola.

1.2- ECONOMÍA DE EUSKADI

La llegada de la segunda ola de contagios a partir del verano se tradujo en nuevas restricciones a la movilidad que frenaron el avance de la economía. En concreto, en el cuarto trimestre de 2020, la economía vasca registró una tasa interanual del -7,6%, una décima inferior a la del periodo anterior, ofreciendo una imagen de estabilidad que interrumpe la recuperación iniciada a mediados de año. Este contratiempo no es exclusivo de la economía vasca sino que se aprecia en el conjunto de la Unión Europea y de la zona del euro, que obtuvieron tasas interanuales inferiores a las del tercer trimestre. Más aún, en esas áreas la tasa intertrimestral fue negativa, mientras que en el caso vasco todavía se consiguió un pequeño avance, del 0,5%.



Eskaintzaren ikuspegitik egindako azterketak adierazten du merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen blokea izan zela hartutako neurri murriztaileek gehien kaltetu zutena. Izan ere, jarduera horien balio erantsia %12,8 murriztu zen laugarren hiruhilekoan, aurreko aldiaren baino gehiago. Aitzitik, sektore publikoari lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak) hedapen tonuari eutsi zioten, eta %1,0 hazi ziren, aurreko hiruhilekoetako emaitzen ildotik. Azkenik, gainerako zerbitzuek hamarren batzuk arindu zuten beherakada, baina tasa oso negatiboa jaso zuten (-%7,5).

Bestalde, industriak bi puntu baino pixka bat gehiago hobetu zuen bere urte arteko aldakuntza tasa, -%7,2an utzi arte. Hobekuntza neurritsu hori zerbitzuen atzerakadatik aldentzen da. Kanpo merkataritzaren suspertzeak manufaktura industriaren zati handi bat normaltasunera itzultzea ahalbidetu du, baina oraindik ez da berreskuratu pandemiaren aurreko ekoizpen maila. Eraikuntzak (-%8,2) puntu bat hobetu zuen bere aldakuntza tasa laugarren hiruhilekoan, nahiz eta gainontzeko sektoreak baino egoera kaskarragoan jarraitzen duen. Azkenik, jarduera ezak zergen bilketari eragin zion (-%9,6), hiruhilekoko balio erantsi gordina (-%7,4) baino gehiago murriztu baitzen.

Eskariaren ikuspegitik, laugarren hiruhilekoaren ezaugarri nagusia kanpo saldoaren okertzea izan zen, BPGaren hazkundeari puntu bat kendu baitzion, hirugarren hiruhilekoko posizio neutroagoaren aldean. Izan ere, barne eskariak zortzi hamarren moteldu zuen jaitsiera erritmoa, -%6,4an kokatu arte, eta aipatutako BPGaren okertze txiki hori kanpo eskariaren ondorio izan zen, bereziki esportazioen tonu faltaren ondorio (-%14,8); inportazioak, berriz, apur bat azkarrago suspertu ziren (-%12,7).

Barne eskariaren bi osagai handietatik, kapital eraketa gordina izan zen hobekuntza nabarmenena izan zuena, hirugarren hiruhilekoan -%11,4ko tasa jasotzetik laugarrenean -%8,4 eskuratzera igaro baitzen.

El análisis desde la perspectiva de oferta indica que fue el bloque de comercio, hostelería y transporte el que más afectado se vio por las medidas restrictivas adoptadas, que redujeron su valor añadido un 12,8% en el cuarto trimestre, un descenso superior al del periodo anterior. Por el contrario, las actividades relacionadas con el sector público (administración pública, educación, sanidad y servicios sociales) mantuvieron el tono expansivo y crecieron un 1,0%, en línea con el resultado de los trimestres anteriores. Por último, el resto de servicios suavizó varias décimas su descenso, pero volvió a registrar una tasa muy negativa (-7,5%).

Por su parte, la industria mejoró algo más de dos puntos su variación interanual hasta el -7,2%, un avance moderado que contrasta con el retroceso de los servicios. La reactivación del comercio exterior ha favorecido la vuelta a la normalidad de una parte importante de la industria manufacturera, si bien todavía no se ha recuperado el nivel de producción previo a la pandemia. La construcción (-8,2%) mejoró un punto su tasa en el cuarto trimestre, pero sigue estando en una posición relativamente peor que la del conjunto de los sectores productivos. Por último, la falta de actividad afectó a la recaudación de impuestos (-9,6%), que se redujo en mayor medida que el valor añadido bruto del trimestre (-7,4%).

Desde la perspectiva de la demanda, la característica del cuarto trimestre fue el empeoramiento del saldo exterior, que restó un punto al crecimiento del PIB, frente a la posición más neutra del tercer trimestre. De hecho, la demanda interna moderó ocho décimas su ritmo de caída, hasta el -6,4%, y el mencionado ligero empeoramiento del PIB provino de la demanda externa, en especial de una falta de tono en las exportaciones (-14,8%), frente a unas importaciones (-12,7%) que se recuperaron un poco más rápido.

De los dos grandes componentes de la demanda interna, la formación bruta de capital fue la que mejoró de forma más acusada, al pasar de un -11,4% en el tercer trimestre a un -8,4% en el cuarto. Sus dos apartados cayeron



Bere bi atalak aurreko aldian baino gutxiago jaitsi ziren, nahiz eta ekipamendurako inbertsioa izan zen dinamismo handiena erakutsi zuena, $-12,2\%$ $-5,9\%$ pasa baitzen. Bestalde, gainerako inbertsioak, eraikuntzan egindakoa barne hartzen baitu, ehuneko puntu bateko jaitziera baino ez zuen hobetu, $-9,8\%$ arte.

Azken kontsumoak bi hamarren baino ez zuen hobera egin laugarren hiruhilekoan. Bere bi osagai nagusiek berriz ere bilakaera kontrajarriak erakutsi zituzten. Alde batetik, kontsumo pribatuak okerrera egin zuen mugikortasunaren murrizketa berrien ondorioz, eta $-9,1\%$ arte areagotu zuen beherakada. Beste alde batetik, kontsumo publikoak nabarmen egin zuen gora eta urtetik urterako $7,2\%$ hazi zen, 2008tik ikusten ez zen ezohiko erritmo bizia baita.

BPGaren susperraldian bizi den balaztak lan merkatuaren bilakaeran ere izan zuen isla. Hala, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua, benetan lan egindako ordukin kalkulatzeko dena, $6,3\%$ murriztu zen laugarren hiruhilekoan, 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta. Kopuru hori aurreko hiruhilekoaren ia berdina da, eta azken urtean 60.000 lanpostu galdu direla adierazten du. ABEEak modu intentsiboan erabiltzeak pertsonengan eragin txikiagoa izatea ekarri zuen. Hain zuzen ere, BJAren arabera, landunen kopurua $2,0\%$ baino ez zen jaitsi. Bestalde, langabezia tasa $11,2\%$ igo zen 2020. urtearen amaieran.

Ekonomiaren bizitasun faltak prezioak aldakuntza tasa negatibotan mantendu zituen iazko azken tartean ere, bai BPGaren deflatoreari dagokionez ($-0,3\%$), bai kontsumoko prezioei dagokienez ($-0,5\%$). Azken kasu horretan, energiaren prezioaren gorabeherak gorakada puntual bat eragin zuten urtarilean, hilabete horretan KPIa $0,6\%$ iritsi baitzen, nahiz eta hiruhilekoaren ondorengo hilekoetan posizio apalagoetara itzultzea espero den.

menos que en el periodo anterior, aunque fue la inversión en equipo la que evolucionó con mayor dinamismo, al pasar de un $-12,2\%$ a un $-5,9\%$. Por su parte, el resto de la inversión, que incluye la realizada en construcción, tan solo moderó su descenso en un punto porcentual, hasta el $-9,8\%$.

El consumo final apenas mejoró dos décimas su situación en el cuarto trimestre. Sus dos componentes principales volvieron a mostrar evoluciones contrapuestas. De un lado, el consumo privado empeoró como consecuencia de las nuevas restricciones a la movilidad y acentuó su caída hasta el $-9,1\%$. De otro, el consumo público incrementó de manera muy significativa su impulso y creció un $7,2\%$ interanual, un ritmo inusualmente elevado que no se veía desde 2008.

El freno vivido en la recuperación del PIB tuvo su reflejo en la evolución del mercado laboral. Así, el número de puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo, que se calcula con las horas realmente trabajadas, se redujo en el cuarto trimestre un $6,3\%$ respecto al mismo trimestre de 2019. Esa cifra es casi igual a la registrada en el periodo anterior e indica una pérdida del orden de los 60.000 puestos de trabajo en el último año. El uso intensivo de los ERTE favoreció que el impacto sobre las personas fuese significativamente menor. Efectivamente, la PRA estima que el descenso del número de personas ocupadas fue tan solo del $2,0\%$. Por otro lado, la tasa de paro aumentó hasta el $11,2\%$ a finales de 2020.

La falta de intensidad en el conjunto de la economía mantuvo a los precios en tasas de variación negativas también durante el tramo final del año, tanto en términos del deflactor del PIB ($-0,3\%$) como de los precios de consumo ($-0,5\%$). En este último caso, las fluctuaciones en el precio de la energía propiciaron un repunte puntual en el mes de enero, mes en el que el IPC llegó hasta el $0,6\%$, si bien se espera que retorne a posiciones más moderadas en el resto del trimestre.



2.- EUSKADIKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK

Ingurune makroekonomikoari buruz eskuragarri dagoen informazioarekin eta EAEko ekonomiaren adierazle eguneratuekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2021erako taula makroekonomikoa berrikusi du, beheranzko zuzenketa garrantzitsu batekin, eta 2022ko datuak proiektatu ditu. Aurreikuspenaren agertoki berrian islatutako emaitzek adierazten dute batez besteko igoera %6,7 izango dela 2021ean eta %5,7, berriz, 2022an. 2021eko doikuntza garrantzitsuaren arrazoia da, batez ere, aurtengo lehen seihilekoan ez dela haziko duela hiru hilabete argitaratutako aurreikuspenetan espero zen intentsitatearekin, eta susperraldia atzeratu egingo dela eta 2021eko bigarren seihilekoan eta 2022an biziagoa izango dela. Hala ere, ekonomia globalean bezala, ziurgabetasuna handia da, eta EAEko ekonomiak arriskuak partekatzen ditu, bai gorantz bai beherantz daudenak.

2021ean eta 2022an EAEko ekonomiaren hazkundearen motorra barne eskaria izango da. 2021ean, batez ere lehen seihilekoan, zuhurtasun irizpidea hautemango da familietako kontsumo erabakietan, ziurgabetasun handiko testuinguru batean. Agregatu horren desiatutako susperraldia 2021. Urtearen amaierara eta 2022. urtera atzeratu da. Orduan, familien gehiegizko aurrezpena kontsumo plan bihurtuko da. Enpresen inbertsioak hedapen bidean eboluzionatuko du, eta Europako funtsek susperraldirako espero duten pizgarriarekin bat egingo du. Administrazio publikoen kontsumoak gora egiten jarraituko du, baina moteltzeko joera txiki batekin, pandemiaren ondorioei aurre egiteko gastu publiko handiagoa onartu delako. Aztertutako denbora tartean, barne eskariaren ekarpena esanguratsua izango da; kanpoko eskariak, berriz, ekarpen negatibo samarra egingo dio BPGaren gorakadari 2021ean, eta zeinu positibora aldatuko da 2022an.

2.- PREVISIONES ECONÓMICAS PARA EUSKADI

Con la información disponible sobre el entorno macroeconómico y los indicadores actualizados propios de la economía vasca, la Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco ha revisado el cuadro macroeconómico para el año 2021, con una importante corrección a la baja, y ha proyectado los datos correspondientes al año 2022. Los resultados reflejados en el nuevo escenario de previsión apuntan a un incremento medio del 6,7% en 2021 y del 5,7% de promedio en 2022. El importante ajuste del año 2021 se debe, principalmente, al supuesto de que durante el primer semestre del año no se va a crecer con la intensidad que se esperaba en las perspectivas publicadas hace tres meses y la recuperación se aplazará y será más intensa en el segundo semestre de 2021 y en 2022. Sin embargo, al igual que en la economía global, la incertidumbre es elevada y los riesgos son compartidos por la economía vasca, tanto los existentes al alza como a la baja.

El motor del crecimiento de la economía vasca en 2021 y 2022 será la demanda interna. En 2021, principalmente en el primer semestre, se apreciará un criterio de prudencia en las decisiones de consumo de los hogares en un contexto de elevada incertidumbre. La esperada recuperación de este agregado se traslada a finales de 2021 y 2022. Será entonces cuando el sobreahorro de las familias se convierta en planes de consumo. La inversión empresarial evolucionará en una senda expansiva y se mantendrá alineada con el estímulo esperado de los fondos europeos para la recuperación. El consumo de las administraciones públicas seguirá creciendo, aunque con ligera tendencia a la ralentización, debido al mayor gasto público aprobado para afrontar las consecuencias de la pandemia. En el horizonte temporal analizado, la aportación de la demanda doméstica será significativa, mientras que la demanda externa presentará una tendencia de contribución ligeramente negativa al avance del PIB en 2021 y cambiará al signo positivo en 2022.



Jarduera adarrei dagokienez, ekoizpen sektore guztiek jarduera 2021ean berreskuratzeko profila deskribatuko dute. Industria adar dinamikoena izango da, nahiz eta azpisektore jakin batzuk, hala nola aeronautika, krisia gehien pairatu duten jardueren taldean kokatuko diren, eta igoera ere gehiago kostatuko den. Bilakaera bera espero da merkaturatzen diren zerbitzuen sektorean; oro har, dinamismo handia gertatuko da, baina turismoari eta aisialdiari lotutako azpisektoreek susperraldia atzeratuko dute. Beste aldetik, eraikuntzak ere gora egingo du aurreikusitako denbora tartean.

BPGaren hazkundeak ondorio positiboak izango ditu lan merkatuan, zeren eta enplegua areagotuko baita eta langabezia tasak behera egingo baitu. Lan merkatuari buruzko aldagaien aurreikuspen berriek erakusten dute 2021ean enplegua %4,9 handituko dela eta 2022rako gehikuntza tasa %3,2 izango dela. Datu horien arabera, 40.700 lanpostu inguru sortuko dira 2021ean, eta 29.000 inguru, berriz, 2022an. Balio horiek lanaldi osoko lanpostuei buruzkoak dira, hau da, aurreikusitako BPGaren mailara iristeko behar diren lanorduei buruzkoak. Susperraldi ekonomikoari esker, aldi baterako enplegu erregulazioko egoeran dauden langileak lanera itzuli ahal izango dira berriro, eta, beraz, pertsona landunen kopuruaren hazkundera txikiagoa izango da, baina baita garrantzitsua ere. BJAren terminologian, okupazioa hazkunde bide batean kokatuko da, eta, gutxi gorabehera, 13.600 eta 15.800 landun gehiago izango dira 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren. Bestalde, langabezia tasa %10,1 izango da 2021ean, eta %9,5, berriz, 2022an.

En materia de ramas de actividad, todos los sectores productivos describirán un perfil de recuperación de la actividad en 2021. La industria se configura como la rama más dinámica aunque determinados subsectores como el aeronáutico irán en el grupo de actividades que más han sufrido la crisis y que también será más costoso el repunte. La misma evolución se espera en el sector de servicios de mercado, a nivel general se producirá un dinamismo importante, pero los subsectores ligados al turismo y ocio irán con retraso en la recuperación. La construcción, por su parte, también avanzará con intensidad en el horizonte temporal contemplado.

El crecimiento del PIB tendrá efectos positivos en el mercado laboral, con aumento en el empleo y descenso de la tasa de desempleo. Las nuevas perspectivas de las variables relativas al mercado laboral reflejan un incremento del empleo en 2021 del 4,9% y para 2022 la variación será del 3,2%. Estos datos supondrán una creación de aproximadamente 40.700 empleos en 2021 y de cerca de 29.000 empleos en 2022. Estos valores son los relativos a los puestos de trabajo a tiempo completo, es decir, las horas de trabajo necesarias para alcanzar los niveles de PIB previsto. La recuperación económica permitirá la reincorporación de trabajadores acogidos en ERTE, por lo que el incremento del número de personas ocupadas será menor, pero también importante. En terminología de la PRA, la ocupación se situará en una senda de crecimiento, con aumentos de, aproximadamente, 13.600 y 15.800 personas ocupadas, en 2021 y 2022, respectivamente. Por otra parte, la tasa de paro se estima en el 10,1% en 2021 y llegará hasta el 9,5% en término medio en 2022.

PERSPECTIVAS MACROECONÓMICAS 2019-2024

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
PIB real	2,2	-9,5	6,7	5,7	2,9	1,7